

# Hitzaurrea

Berrogei urte euskalaritzan eta hizkuntzalaritzan:  
Gorazarre Jose Ignazio Hualderi

Laster dirateke lau hamarkada Jose Ignaziok *ASJU* urako bere lehen ekarpena eskaini zigunetik (“Tone and stress in Basque: a preliminary study”, *ASJU* 20, 1986, 867-896). Nahiz horri lan eta saio asko jarraitu zaizkion egungo egunera arte euskal fonologiaren alderdi askotarikoez —dialektoen azentuez eta euskara zaharrarenaz bereziki, baina baita horien inguruko teoria fonologikoaz eta fonologia teoriaren oinarriez— lehen garaietan ez zion muzin egin sintaxiaz (dela kasu ezarpenaz, dela *ari*-ren berregituraketaz) jarduteari ere.

Hizkera eta dialektoez ari, hizkuntza egoera ezberdinetara ere hedatu zuen bere arreta, eta, besteak beste, euskara-islandiera pidgina eta Manuel Larramendiren azentuaren inguruko lekukotasuna aztertu zituen. Aurreko ikerketa eta ekarpen kateak *ASJU* ren Gehigarrietan bi liburu garrantzitsu argitaratzera eraman zuen 90eko hamarkadan: batetik, Gorka eta Arantzazu Elordietaren laguntzarekin, *The Basque dialect of Lekeitio* (1994), euskal dialekto baten ingelesezko tratamendu moderno lehenetarikoa, eta, bestetik, *Euskararen azentuak* (1997), aitzineko hainbaten sintesi eta garapen eta beste berri askoren pizgarri. Ez da ahanztekoa mordoia izan direla J.I.-k zabal edo laburrago aztertu dituen hizkera eta dialektoak: Bizkai iparraldeko hizkerak lehenik, Bizkai barrukoak eta Urolakoak gero, Goizueta sarritan, zuberera eta erronkaria aldiro...

Elkarlanean sortutako artikuluak eta kapituluak eta liburu eta bilduma ugariak izan dira geroztik J.I.-ren eskutik: *Generative studies in Basque linguistics* (Jon Ortiz de Urbinarekin zuzendua, 1993), *Towards a history of the Basque language* (Joseba Lakarra eta Larry Traskekin zuzendua, 1995) edo *A grammar of Basque* handia (2003, berriro ere Ortiz de Urbinarekin); beste hainbat ikertzailek ere hartu zuten parte hurretan.

90eko hamarkada horretatik *ASJU* ko “Advisory Board”eko kide eragile eta artatua dugu, eta horrek lan eta langile bat baino gehiago erakarri izan du gure aldizkaria. Halaber, euskalaritzaren beste organo askotan parte hartu du J.I. Hualdek (*Euskera, Fontes Linguae Vasconum, Uztaro, Lapurdum, Oihenart, Euskalingua*), eta euskal fonologiazko gaiak landu ditu are nazioarteko hainbat aldizkaritan ere: *Lingua, Linguistics, Linguistic Inquiry, Diachronica, Modern Language, Historical Linguistics*...

J.I. Hualdek, gainera, parte hartu du ezin konta ahala kongresu eta biltzarretan, baita hainbat euskalariren omenalditan ere (Mitxelena, de Rijk, Txillardeggi, Trask, Oihartzabal, Sarasola, Aurrekoetxea, Gorrotxategi, Gaminde, Oñederra, Echenique,

Zuazo), eta are, beren testu ahaztu edo gutxi ezagunak berreskuratuz, berariazko omenaldi partikularra egin die zenbait euskalariri ere (Mitxelenari behin baino gehiagotan, Jacobseni orobat).

Jose Ignazio Hualde oso ezaguna da, orobat, fonologia eta hizkuntzalaritza erromantzearen arloan, batez ere gaztelaniari begira. Aldizkari eta liburukietan egindako artikulua ugariez gain, aipatzekoak dira *The sounds of Spanish, Introducción a la Lingüística Hispánica* eta *Handbook of Hispanic Linguistics* liburuak. Gaztelaniazko silabaz, azentuazioaz eta intonazioaz egindako lanek eragin handia izan dute eta izaten jarraitzen dute gai hauetan dabilzan ikertzaileentzat, baita gaztelaniazko eta beste hizkuntza erromanikoetako kontsonante lenizioari buruzko ikerketetan ere. Jose Ignaziok hizkuntzalaritza orokorrean izandako prestakuntzak bere ekarpenak beste hizkuntza batzuetara ere bideratzeko aukera eman zion, besteak beste, bantu hizkuntzetara, Larry Hymanek gogorarazten digun bezala (cf. Hualderen KiRimi eta KiNande-aren objektu bikoitzaren egiturari buruzko artikulua 1989an). Behin baino sarriago, alderdi honetan ikasitakoak eta erakutsitakoak izan du oihartzunik euskararen azterketan: horren erakusgarri da Tokioko japonieraren eta ipar bizkaierako bariatateen arteko erkaketa, doinu-azentuari eta hitz azentugabe eta azentudunen existentziaz denaz bezainbatean, zeina kasualitate tipologiko deigarria baita.

Orain arte gogoratu ditugun ekintzetan ez da amaitzen Jose Ignaziok egindakoa eta, askoz gutxiago, hark oraindik bere barruan egiteko edo eginkizun duen gutzia. Beraz, orain oparitzen diogun adiskidetasun eta esker oneko liburu honek ez luke gehiagoren eskari eta iragarpen-akuilu goxo baino izan nahi.

Editoreok duela urte pareta-edo Jose Ignazioren lan eta bitzta oparoak ospatzeko horietako zein urtemuga edo gertakari markatuko genukeen erabakitzean, egilearen 65. urtebetetzearen erreferentzia klasikoa lehenetsi genuen, baina ez zitzaigun zail izango oinarri hartzea —bat baino gehiago begiz joa genuen— honako liburu edo bilduma garrantzitsuren 30 urteak, harako artikulua edo monografiaren 25 edo 35ak, egileak edozertarako gaia eskaintzen baitigu bere ia berrogei urteko jardun aberatsuan.

Omenaldira gonbidatutako guztiz gehienen aldetik harrera eta erantzun bikaina izan dugu, antolatzaileok hasieran itxaron baino are hobea. Damurik, izan da zenbait lagun eta lankide gure epeetara ezin izan dena moldatu edota hainbat arrazoiengatik ezin izan duena parte hartu eta *Tabula Gratulatorian* agertuz elkartasuna adierazi nahi izan duena.

Eskerrak ASJUko Kontseiluko kideei proiektua ASJUren 2023ko zenbaki bikoitzat onartzeagatik eta bultzatzeagatik, partaide guztiei beren ekarpenengatik, Joyce Tolliver J.I.-ren emazteari eta Manuel Pérez Saldanyari Hualderen fotoengatik, orobat bigarren honi omenduaren bibliografiarekin eman laguntzagatik, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzukoiei beren erraztasunengatik eta Ipar inprimategikoei beren ofizioengatik. Halaber guztiei pairatu ditugun atzerapen desatseginetan izan duten eroapengatik. Eskerrak denei eta denagatik, eta zorionak eta urte askotarako gure lankide eta adiskide Jose Ignaziori.